

## “ILP eskola inklusiboa” tramitazioaren aurrean

HEIZEk bere babeseta eta zabalkundea eman dio inklusio orekatua lortzeko Zubiak Eraikiz taldearen ekimenari beste hainbat eragile, sindikatu eta alderdi politikoekin batera.

Egungo euskal hezkuntza sistemak hainbat gai ezberdin ditu non lan egina (ebaluazio eredu, euskalduntzea, hezkuntza lege aurrerakoa lortzea...) Gai horietako bat ikasleriaren beharrei era egokienean hezkuntza sistema osoa moldatzea euskal hiritar guztion ongizate maila egokiena lortze aldera dela uste dugu. Argi dugu ikasleriaren segregazioak ez diola helburu honi laguntzen.

Egungo euskal hezkuntza sistemarentzat errokoa den gai honetan, datuek argi adierazten dute sare publiko eta pribatuaren arteko desoreka, hausnarketa sakona eragiten laguntzea gizarteari on egingo diolakoan gaude. Gizarte osasuntsu batek, euskal gizartea halakoa dela deritzogu, berezkoa dituen balio eta zaharberritzeko oinarri sendoak izan behar dituela sinistuta gaude.

Balio demokratiko horien erakuslerik gorengoa legebiltzarretan ordezkatzeko gaituzten alderdien eztabaida eta adostasunak badira, ez genuke ulertuko halako gai bati merezi duen lekua, espazioa eta denbora ez ematea, are gehiago 17.000 sinaduren babeseta duen ekimena kontutan hartuz.

Aurrera begira lanean jarraituko dugu euskal hezkuntza sistemarentzat errokoak diren gai hauen guztien inguruan lanean. Guztiok merezi dugun hezkuntza sistema ekitatibo, inklusibo, duin, aurrerakoi eta berritzaile baten mesedetan betiere Eskola Publikoan ardatza izanik.

Euskadin, 2018ko urriaren 3an

